

ARRAIÑAK

MAKALLAUA

Bakallaua edo makallaua dala esaten da euskaldunen arraiña.

Oraintsu Buska Isusi'k esaten eban lez, gure asabak erakutsi eutsen mundu guztiari bera arrantzaten, eta euskaldunak erakutsi gazitu eta guritzen, eta euskaldunak erakutsi, baita, sukaldetan ainbat eratan gertuten.

Bakallau edo makallaua latinezko izenez Gadus da. Baiña Gadus senitartean asko sartzen diran lez, Gadus morhua lez zeaztu bear.

Itxas-beian ibiltzen da, ur-azaletik 300-900 metrotarako sakonetan.

Gadus familian sartzen dira faneka, lotza edo mastrana, tutxuela, aolatz, letxerua, palenka eta abar. Eurok arrantzaten diran itxas urak ezbaridiñak dira.

Nortasun beteko bakallaua, Terranoba eta Gran Sotetik iparraldera arrantzaten dabe gure itxastarrak.

LEBATZA


Gure artean arrain ugaria, lebatza edo lagatza da. Bizkaia'n lebatza sarriago erabilten dogu.

Eun metrotik berreun metro inguruak dira bere ur-azpiko bizi leku atsegiñak, eta itxas-ondo arritsu eta gogorak aukeratzen ditu.


Merlucius merlucius dau latinezko izen erabilia. Bai eta merlucius esculentus be.

MERLANA

Famili oneitan ba dago beste bat, letxera edo merlana deitzen dautsena. Txikitan, toki askotan, lebazkume lez saltzen dabe. Liba. Latinezko izenez, *merlangus merlangus*.



LIBA <i>Merlangus merlangus</i>	esp) Plegonero	ing) Whiting
	fr.) Merlan	ale) Mittelmeerdorsch
	it.) Merlano	cat) Peix rei



LEGATZ <i>Merlucius merlucius</i>	esp) Merluza	ing) Hake
	fr.) Colin	ale) Seehecht
	it.) Nasello	cat) Lluc

ZELAKOAK

Baiña ba ete dauke arraiñak erraz bereiztu edo ezagutzeko biderik?

Beste bereiztasun batzun artean, gain gaiñetik begiratu bizkar edo lepo gaiñeko eskardetara.

Lebatzak eskarda talde bi daukaz. Lenengoa laburra eta gerokoa luzea. Libak, barriz, iru eskarda. Aurrekoa tenteena, erdikoa luzeagoa eta buztan aurrean beste laburragoa.

Sabelean, lebatzak eskarda luzea buztanerañio. Libak lenengo luzea, bitartea eta gero beste txiki bat.


LEBATZA ALA MERLANA

Sarri libak lebazkume edo merlenkatzat artzen diranaren, ezin leikez lebatzekaz nastu edo lebatztat artu. Ez da lebatza bezin on eta atsegiña.

Alaz eta ezin esan askok, uste baiño geiagok, atakotzat jango ez ebenik.

Ikus irudiak. Ikasi bereizten. Maian, kazularan, dagona jatea da. Erostean kontu euki bear.

Augustin ZUBIKARAI



Ona emen gure Anagagasti'tar Pedro Arantzazu'ko Frantzisko' larrak idatzitako olerki liburu polita. Sarrerea aita Onaindia'k egiten dautso.

Irakurteko errezak eta gozoak dira eta lau arlotan datoz: Lurra, Aberría, Gizartea ta Fedea.

Olerki gozo oneitan gipuzkera darabil aita Anasagasti'k, baiña inork ez dau izango gauzea ulertzeko eragozpenik.

Noizean bein olerki negatiak be ba-daukoz, batuta ez dira negar mingotsak, gozoak dirala esan le. lexaropenez ez ba'da be, gurari onez beteriko aienak dira.

Astiro, baketsu ea atsedenez euskerazko zerbait irakurri nai dabenak erosi begie liburutxu au.